



Rekondo eta Olano, Nafarroako aizkora finalaren bila

LEITZA ▶ Etzi jokatuko dute
Iturenen Txapelketako kanporaketa

AUKERAK ▶ Beste 11rekin lehiatuko
dira; bost txartel daude jokoan ▶ 7

TOLOSA ▶

34 gaztetxok
hartu dute
parte udako
pilota
ikastaroan

Anizeto Lazkano
arduradunaren
hitzetan, «zaletasuna
piztu nahi diegu» ▶ 2

VILLABONA ▶

XXVIII.
Usakume
Tiraketa,
bihar,
Arratzainen

1.500 euro banatuko
dituzte Behar-Zana
Sarian; Izarre zelaian
jokatuko dute ▶ 4



Txintxarri hotsak ozen entzuten dira

ALEGIA ▶ Eguraldi bikainarekin eta ekintzaz beterik iritsi da jaien lehen
eguna; asteburu luzea dute oraindik alegiarrek bi egitaraueri esker ▶ 5

ELDUAIN ▶

Zeberio II.ak ezin izan du San Fermin Torneoa irabazi. ▶ 6

KIROLA ▶

Gaztetxoek azken pilotakadak

Atzo amaitu zuten, Uda kirolak 2006 kanpainaren baitan, 34 haur eta gaztetxoek pilota ikastaroa; «izandako arrakasta dela-eta» bigarren hamabostaldian ikastaro berria egingo dute

NOELIA LATABURU

Egunero-egunero», Tolosako, Anoetako eta Ibarako sei eta hamabi urte bitarteko 34 gaztetxok Beotibar pilotalekuan izan dute hitzordua. Izan ere, bertan, Uda Kirolak 2006 kanpainaren baitan, udako pilota eskolan hartu dute parte. Bi asteren ostean, atzo eman zioten amaiera Anizeto Lazkanok eta Mikel Belloso zuzentzen duten ikastaroari.

«Pilotakadak pilotakada», pilotarekiko zaletasuna pizten saiatzen dira entrenatzaileak. «Gazte asko gero futbolera edo beste kirolen batera pasatzen dira, baina behintzat hemen gustura daude», azaldu diote Hrtzari bi arduradunek. Bi talde osatu dituzte; lehenengoa, hogeitaz gaztetxoekin, goizetan aritzen da, eta bigarren talde-

ak, berriz, arratsaldeetan entrenatzen du. Teknika, kantxan izan beharreko jarrera, ezker eta eskuin eskuen erabilpena... Denetik landu dute bi aste hauetan, «oraindik onak izango diren jakiteko goizegi bada ere».

Aurten, birritan

«Jolas eta jolas». Gisa honetara eman diote 34 umeek amaiera udako pilota eskolari. Hala, atzokoan teknikak eta prestaketak albo batera utzi, eta elkarrekin jolasteko aukera izan zuten. Hala ere, eskolak ez du etenik «izandako arrakasta dela-eta eta gurasoek hala eskatuta» hil honen bigarren hamabostaldian berriz ere etxeko gaztetxoek pilotako teknika hobetzeko aukera izango dute, eta, batik bat, kirolarekin gozatzeko.



Goizero jardun duten pilotari gaztetxoak, bere bi entrenatzaileekin. N. LATABURU

ANIZETO LAZKANO ▶ UDAKO PILOTA ESKOLAKO ARDURADUNA

«Pilotarekiko zaletasuna piztu nahi diegu gaztetxoei»

Tolosako pilota mugimenduari hertsiki lotuta egon da betidanik Anizeto Lazkano. Atzo bukatu zuten udako pilota eskolaren inguruan aritu da solasean Hrtzarekin.

Noiz hasi zineten udako eskolarekin?

Aspaldi ekin genion, gaztetxoek neguan egindakoari jarraitzea emateko asmoz.

Arrakasta izan al du eskolak?

Gero eta partaide gehiago ditugu eta aurten, gainera, gurasoaren eskaera dela eta, beste ikastaroa egingo dugu datorren hamabostaldian.

Zer helbururekin hasi zineten eskolekin?



O. ESKITXABEL

Batik bat, txikitatik gaztetxoek artean zaletasuna piztea da asmoa, gero batzuk beste kirolera pasatzen diren arren. ◀



Arratsaldeko saiokoak ere fin aritzen dira pilotari astintzen; argazkian, Lazkanorekin. N. LATABURU

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Osakidetza. Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 313782.

Diputazioak. Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaintzaileak behar ditu. 943 313782.

Laborategi teknikariak. Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 313782.

Liburutegi laguntzaileak behar dira

zenbait udaleketan. 943 313782.

Administrari laguntzaileak. Anoeta, Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro... udalekietan administrari laguntzaileak behar dira. 943 313782.

Peoiak, garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian.

Informa zaituz: 943 313782.

Haur zaintzaileak, hezitzaileak. Eskola publikoetarako plaza libreak. 943 313782.

Peoiak. Udalekietan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libre.

943 313782.

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa. 943 313782.

PALA ▶
ESTI EZEIZA

14 bikotek lehia dihardute dagoeneko Tolosa CFk antolatutako 38. Paleta Txapelketan. Bi aste igaro dira ligaxka hasi zenetik, eta zortzi egunetan, hogei partida jokatu dituzte. Antolatzaileen esanetan, «oso maila ona erakusten ari dira jokalariek, eta neurketak nahiko orekatuak eta gogorrak ari dira izaten».

Oraindik sei norgehiagoka geratzen dira ligaxka amaitzeko, beraz, datorren asteke amaierararte ezin izango da jakin nortzuk sailkatuko diren final-laurdenetarako. Hala, astelehenean bi partida izango dira: lehenengoan, Xabier eta Aierdi ariko dira, Balerdi eta Agirrereren aurka; bigarrenen, berriz, Yugueros eta Aldazabal lehiatuko dira Imaz eta Garmendiaren kontra. Astearteko partidetan, berriz, aurrenekoan, Sarasuak eta Txapartegi k jokatu dute Galarraga eta Landarekin batera; eta hurrengoan, Lontxo eta Nazabal, Xabier eta Aierdiren aurka. Azkenik, ligaxkari amaiera emateko, asteazkenean, Zabaleta eta Urdanpilleta Galarraga eta landaren aurka ariko dira, eta Otermin-Goitia bikotea Apeztegia-Maizaren kontra.

Hilaren 20-21ean final-laurdenak jokatu dituzte, 26an finalerdia, eta 28an finala.

Sei partida gehiago falta dira final-laurdenetan zeintzuk lehiatuko diren jakiteko

14 bikotek eman dute izena aurten Tolosa CF.k antolatutako 38. Paleta Txapelketan, eta guztiak ere «oso maila ona ari dira erakusten»

EMAITZAK ▶
38. PALETA TXAPELKETA

Yugueros-Aldazabal	30
Balerdi-Agirre	26
Apeztegia-Maiza	30
Garmendia-Beobide	16
Goitia-Otermin	30
Artola-Goikoetxea	19
Galarraga-Landa	30
Goiburua-Etxarri	28
Zabala-Urdanpilleta	30
Galarraga-Landa	27
Lontxo-Nazabal	30
Imaz-Garmendia	10
Apeztegia-Maiza	21
Artola-Goikoetxea	30
Lontxo-Nazabal	30
Balerdi-Agirre	17
Sarasua-Txapartegi	25
Xanet-Inxausti	30
Yugueros-Aldazabal	28
Berasategi-Aierdi	30
Sarasua-Txapartegi	30
Goiburua-Etxarri	18



Balerdi-Agirre eta Imaz-Garmendia bikoteak, osteguneko partidari. E. EZEIZA

JON ALDAZABAL ▶ PALETA TXAPELKETA ANTOLATZAILEA

«Gero eta txapelketa gutxiago daude, baina hauetan, jende gehiago»

38. edizioa du dagoeneko Tolosa CFk antolatutako Paleta Txapelketa. Eta Jon Aldazabal urte urte hau antolatzen aritzen da beste hainbatekin batera. Hala ere, paletako jokalariek beraiek ere asko inplikatzeko dira, eta epaile lanak egiten nahiz antolakuntzan laguntzen dute.

Aurreko urteekin alderatuta, jende gehiagok hartu du parte...

Bai, iaz 12 bikotek eman zuten izena, eta aurten 14k. Eskualdeko jende asko animatu da,

Amezketan aldekoa-eta. Ikustera ere jende gehiago hurbiltzen da.

Eta hori, zergatik?

Gero eta txapelketa gutxiago egiten dira urtean zehar, horregatik, hauetan jende askok hartzen du parte. Bestalde, aurtengo edizio honetan, irabazleek Gipuzkoako Txapelketarako txartela irabaziko dute, eta eskualdea ordezkatu dute. Hala, hau ere, beste arrazoietako bat izan daiteke, honek ere erakartzen baitu.

Paletan jokatzeko afiziorik


JOXEMI SAIZAR

ba al dago eskualde honetan?

Bai, badago ohitura. Askok, astean ordubeteko bat hartzen dute taldean jokatzeko.

Zergatik uste duzu, errebotak-eta izen gehiago duela?

Berez, paletan jende gehiago ibiltzen da errebotean baino. Bakarrik, bakoitza bere kabuz ibiltzen dela, bigarren kirol bezala hartzen dute, besteak baino kirol erosoagoa da. Hala ere, honek ez du irabazirik ematen, eta jendea ez da animatzen konpetitzera. Jendeak ez du antolatu nahi, denek atzetik ibili

beharra baitago. Gainera, musutruk egin behar da lana, honek ez baitu dirurik ematen.

Aurtengoan ere neskek falta.

Ez, ez dira animatzen, berez dago inolako mugarik, baina neska gutxi ibiltzen dira paletan. Oiarzun aldean badago afizio apur bat, baina hemen ez. Neskek ez daukate ohiturrik, mutil gehienok gure ordu-txoa hartuta daukagu.

Hezkuntza kontua ote da?

Bai, baina ez paletan bakarrik, pilotako modalitateak gehiago bultzatu beharra daude. Urte urte gehiago izateko. ◀

iragarki laburrak ▶
LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau ordu lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. Interesatuak deitu 635 74 52 91 zenbakira.

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna batean. Lanegun osorako. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 677 32 99 34.

Landetxea. Uztail erditik abuztu

bukaerara arte landetxe batean lan egiteko pertsona bat behar da, autoarekin. 10:00etatik 13:30etara. Ondo ordaindua. Deitu 943 65 20 03 zenbakira.

SALGAI

Pisua. Leitzan, 100m2ko pisua salgai. Igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. Interesatuak deitu 699 46 13 65 zenbakira.

ARAMBURU

Alokatzeko. Salouen apartamentua 2 gelekiko eta haize egokitua.

Alokatzeko. Pisua. Tolosan: Amaro eta lurren, eta Anoetan.

Alokatzeko. Garajeak. Araba etorbidean.

Salgai (Tolosako lurren). Ofiziala lokala.

Salgai (Tolosa). Pisua Trinkete plazan, 78 m2, garaje itxiko aukerarekin.

Salgai (Tolosa). Pisua San Frantzisko, Laskorain eta Larramendin.

Salgai (Garajeak). Tolosako Leidor azpian eta Ibarren, karabana sartzeko garajea.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

Beti nahi

jatekoa

Garaian
garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

VILLABONA ▶ KIROLA

1.500 euro banatuko dituzte saritan usakume tiraketan

Villabonako XXVIII. Behar-Zana Saria egingo dute bihar Arratzaingo Izarre zelaietan

ERREDAKZIOA

Villabonako Arratzain auzoko Izarre zelaira tiratzaile ugari bilduko dira bihar. Herriko XXVIII. Usakume Tiraketa Behar-Zana Saria egingo dute. 1.500 euro banatuko dituzte saritan, etxe laguntzaileek emango dituzten opariez gain. Bi txanda izango dira: lehenengo 10:00etatik 13:00etara eta bigarrena 16:00etatik 18:00etara. 28 euro balio ditu inskripzioak, usakumeak aparte.

Hiru usakumeri tiro egiteko aukera izango dute parte-hartzaileek. Hirurak botatzen dituztenek berriro egin beharko dute tiro berdinketa hausteko. Bi usakume botatzen direnen artean ez da berdinketa hausterik egingo, eta inskripzioa lehenago egin duena lehenetsiko da. 18 metroko distantziara egingo da tiro.

Sariei dagokienez, lehenengo 14ek dirua jasoko dute opariaz gain. Sailkapenean 15etik 40era bitartean gelditzen dire-

nak oparia jasoko dute. Behar-Zana elkarteko kideen arteko lehenengo biek ere garaikurra jasoko dute.

Txapelketan parte hartzeko federatuta egon beharra dago. Federatugabea izan eta parte hartu nahi duenak, han bertan federazioko txartela egiteko aukera izango du, eta ondorioz, lehiari parte hartu. Txapelketako tiro zuzendaria Felipe Queralt izango da, eta epaile lanean Gipuzkoako Ehiza Federaziokoak ariko dira.

SARIAK ▶

Lehenengo bostek jasoko dituzten sariak:

1. 450 euro, txapela eta urdaiazpikoa.
2. 300 euro, oparia edo urdaiazpikoa.
3. 200 euro, oparia edo urdaiazpikoa.
4. 140 euro, oparia edo urdaiazpikoa.
5. 90 euro, oparia edo urdaiazpikoa.

ADUNA ▶ EHNA

EHNarekin bizitzeko eskubidea

Erredakzioa ▶ EHNarekin bizitzeko eskubidea aldarrikatu dute hainbat mendizalek. Adunako Bai Euskal Herriari herri ekimenak antolatuta, Larrun mendira irteera burutu zuten EHNA soinean zutela. Mendizaleek Kultur Aretoko zakarrontzi batean utzi zituzten NAN txartelak abiatu aurretik. Bidean, Lasarteko gasolindegian batean, txartel bidez ordaintzeko garaian EHNA erakutsi zuten. Larruneko tontorrean aldarrikatu zuten «euskal herritarren naziotasun eskubidea», EHNA eskuan zutela. HITZA



ANOETA ▶

Ezohiko bilkura egingo du udal plenoak etzi

Alderdien legerari eta frankismoari buruzko mozioak, aztertuko dituzten gaien artean

ERREDAKZIOA

Anoetako udal plenoak ezohiko bilkura egingo du etzi, hilak 17, 20:15ean. Ondorengo gaiak jorratuko dituzte bileran: ekainaren 1eko bilkuraren akta onartzea; alkatetzaren ebazpena; 2005-2006 ikasturtean Eskola Kirola aurrera eramateagatik Ikastolari dituzte laguntza emateko proposamena; euskaren udal ordenatza onartzeko proposamena. Aurrerapeña. Anoetako A14, A20, S1 eta R1 areei buruzko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntuala eta zuzenketa; mozioa alderdi politiko-erakunde buruzko 6/2002 lege organikoaren aurka, Euskal Herriaren eskubide zibil eta politikoen errespetua aldarrikatzea; eta mozioa uztailaren 18an kolpe frankistaren 70. urteurrena beteko dela eta, «altxamendua» gaitzetea.

ANOETA ▶

Irakasleak behar dira zenbait ikastaro emateko

Anoetako Udalak irakasleak behar ditu 2006-2007 ikasturtean yoga, euskal dantzak, eskulanak eta marrazketako klaseak emateko. Ezinbestekoa da euskara jakitea. Interesaturik daudenek curriculum bidali behar dute udaletxera, uztailaren 28a baino lehen.

ZIZURKIL ▶

Izaro Lizarraga irabazle, festetako kartel lehiaketan

Zizurkilgo 2006 urteko festetako kartel lehiaketaren emaitza jakinarazi du Udalak. Izaro Lizarraga da lan sarrituaren egilea. Aurtengoan lau lan aurkeztu dira lehiaketara.



EUSKAL JAIA
BILLABONA 2006

ZIKIRO JATEA Uztailak 29
Larunbata

Itsaskabra budina salsa arrosarekin
Nafarroako zainuriak ozpin-olio saltsa bereziarekin
Pikillo piperrak bakailaz beteta pikillozko saltsarekin
ZIKIROA *letxuga eta tipula entsaladarekin*
Mokazko tarta jogurt-krema eta bainilazko izozkiarekin
Kafea eta Kopa

Menua: 20 €

Txartelak salgai:
- Amasa okindegia-Kixubi okindegia-Larrea okindegia-
Labezain okindegia-Ogi Goxo okindegia-
Shepherds garagardotegia - Iturrigoxo jatetxea - Garmendia
Harategia - Arnasa - Iru-Aldeta - Maxola - Joe-Itzalpe

Oharra:
Txartelak erosteko azken eguna uztailaren 23a izango da.

APURTZULEKAK:

ALEGIA ▶ JAIAK

Txintxarria udaletxera iritsi da

Egun tristen ondorengo jardunaldi beroa iritsi da herrira, erraldoien, buruhandien eta sagardo tragoen laguntzaz



Festa alternatiboaren baitan ostegun arratsaldean sagardo dastaketa antolatuta zuten. JULEN GOIKOTXEA



Futbito 8ko nesken eta mutilen taldea izan da txupinazoa botatzeaz arduratu dena. ESTI EZEIZA

NEREA URBIZU

Hasi ziren festak, Alegiako Karmenak, hain zuzen. Eguraldi bikaina izan zuten, giro apartaz gain. Txintxarria udaletxera iritsi zen.

Jende asko bildu zen atzo plazan, erraldoien aurrean. Aralar-Intxurre talde infantileko neskek eta mutilak izan ziren udaletxeko balkoian txupinazoa botatzen. Horren aurretik, Aitor Sarasola zinegotziak pregoia irakurri zuen.

Ondoren, txapelak eta baloiak bota zituzten balkoitik behera, Amaia Artolak egindako logoarekin, berak irabazi baitu aurten bigarren saria. Lehenengoa Iñigo Ormazabalak, eta hirugarrena Ander Urienek.

Egin zuen beroarengatik buruhandiek maskuria eta burua bera ere eskutan eraman behar izan zuten. Dultzaineroek erraldoiekin batera egin zuten desfilea.

Haur jaialdiaren baitan Poxpolo eta Mokolo aritu ziren haurren aurrean barre algarak eragiten, eta baita gurasoena ere. Haientzat sagardo kupel bat jarri zuten, beroari modu eraginkorrez aurre egiteko.

Zikiri jatean 140 bat lagunek behintzat izena eman zuten afaltzeko, ondorengo bertsolarietaz ere gozatzeko.

Jai alternatiboetan, barreak

Jai alternatiboaren baitan, Xantox futbito Txapelketako sariak banatzeko aitzakia hartuta, bazkaria egin zuten atzo. Ondoren, Macrea umorista izan zuten, *Bakea eta umorezko autobusa* eskainiz. Itzalean «gustura» izan ziren atzoko piratak,

GAUR ▶

EGITARAU OFIZIALA

09:00. Herriko txistulari eta trikitilarien diana.

09:30. Giroarte dultzaina taldeak alaituriko diana.

11:00. Arko tiraketa Arko Natura taldearen eskutik, eliza ondoan.

12:00. Txakolin eta sagardo dastaketa sardina eta txorizo erreekin.

12:00. Loatzko Musika Eskolako kalejira.

17:00. Herriko dantzarien emanaldia Larraitx auzoko plazan.

18:00. Herri Kirolak Larraitx auzoko plazan: Harrijasotzaileen I. Txintxarri Saria eta aizkolarien saioa.

19:45. Salbea Txintxarri abesbatzarekin.

21:00. Zahagiardoa. Ardoa Gaztetxeak, postrea Udalak.

23:00. Umeen karaokea.

00:00-05:00. Makro diskoteka.

EGITARAU ALTERNATIBOA

20:30. Zahagiardo bateratua.

23:30. *Ez Alegin ez iñun, AHTrik ez!!* manifestazioa izango da.

Ondoren. Jose Luis, no me mires con el ojo de cristal taldea, Konkouma eta Uek izango dira kontzertuan.

01:00. DJ Burrenba ariko da Gaztetxean.

euskal gaiek kanpotarrei harritzen dien modu hori barre zioa izanik.

Gaur ere horrela jarraitzeko asmoa eta gogoia erakutsi dute, giroa «oso ona» baitzen.

ALEGIKO ZAHARREN EGOTZA EDARITEGIA

Gosariak, pintxoak, meriendak eta... GIRO JATORRA!

Alegiko plaza • Tel.: 943 65 58 00

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Uda ganean, jende askok oporretara joateko aprobetxatzen du. Zein da gustukoena duzun ostata? Zein nahiago duzu?: hotela, kanpina, apartamentua... Sar zaituzte gure web gunean eta eman zure iritzia, besteekin konparatzeko aukerarekin.

ISKIÑA

TABERNA

Goizean Salda
Gauetan martxal!

INTERNET

San Juan, 59 ALEGIA
Tlf.: 943653097

15 egunetako bidaiak AUTOBUSEZ eta KANPINETAN

Eslovenia-Croacia

Ekainak 30 - Uztaileak 16
530€ tik aurrera



Maroko (hoteletan) EUSKARAZ

Ekainak 30 - Uztaileak 16 530€ tik aurrera



Bretaina

Abuztuak 1 - 15
435€ tik aurrera



PREZIOAREN BARNE:

Garraioa, kanpinetako eta hoteletako egonaldia, bisitak, aseguruak, gida koordinatzaile bat,


Txekia

Abuztuak 1 - 15
390€ tik aurrera



Kortsika

Abuztuak 16 - 31 390€ tik aurrera



KULTOUR

Segundo Izpizua 28
Donostia. Tel: 943 29 70 25

info@kultourbidaiak.com
www.kultourbidaiak.com

Ordaindu 6 hilabetetan
interesik gabe

ELDUAIN ▶ ERREMONTEA

San Fermin Torneoa ezin izan du eskuratu Zeberio

Ezkurra-Etxeberria III.ak irabazi zieten Urrutiari eta elduaindarrari, 40 eta 39

IÑIGO TERRADILLOS

Herenegun jokatu zen Euskal Jai Alai pilotalekuan, jendez lepo zela, San Fermin Erremonte Torneoko finala Ezkurra eta Etxeberria III.aren eta Zeberio II.a eta Urrutiaren artean, eta lehenengo bikotea izan zen txapelduna 40 eta 39ko emaitzarekin; final ikusgarria izan zen seinale, beraz.

Partidak denetik izan zuten, tanto onak, hutsak eta emozioa soberan; eta bi bikoteek izan zuten irabazteko aukera, hogeita hemeretzinako berdinke-tarekin iritsi baitziren amaiera-ra. Piloteoan aritu zireneko azken tanto horretan, ordea, zorteak Ezkurra eta Etxeberria III.aren alde egin zuten.



Zeberio II.a, San Fermin Torneoko finalean. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Bukaera aldean lehia oso berdinduta bazegoen ere, finaleko faboritoak, hau da, Ezkurra eta Etxeberria izan ziren nagusi partidaren hasieratik erdialdera arte. Izan ere, hamabi tantoko aldearekin jarri ziren, 20 eta 8. Une horretatik, nekeak Etxeberria moteldu zuten, eta Zeberio eta Urrutiak tar-tea murriztu ahal izan zuten, 35 eta 27 jarri zirelarik. 35na berdindu zuten markagailua, eta txapeletik tanto bakarrera ere jarri ziren, 35 eta 39. Zeberio eta Urrutiak ez zuten arriskatzeko asmorik, eta Ezkurra partidaren lema hartu eta auzardiaz jokatu zuten, partida 39 tantora berdindu arte. Azken tantoan ere, bera izan zen tantoaren egilea.

PATXI ZEBERIO ▶ PILOTARIA

«Zorteak pisu handia izan zuten azken tantoan»

Finalera ailegatu ostean, partida txukunagoa egiteko asmoa zuten bai elduaindarrak bai eta bere bikote Urrutiak ere; hori dela eta, ezin esan gustura daudenik.

Hasiera kaskarra, baina erdialdetik aurrera buelta eman zenien finalari.

Ez ginen partidaren sartu hasieratik, eta hor abantaila hartu zuten. Gero buelta eman ahal izan genion, eta txapela lortzear egon ginen.

Azken tantoa nolako izan zen?

39na gindoazen. Pilotak ordurako oso gastatuta zeuden, eta horregatik zorteak pisu handia du une horretan. Piloteoan erabaki zen tantoa euren alde. **Zerbait gehiago espero zuten zuek.**

Bai. batetik, finalera ailegatu eta maila ona eman eta partida txukuna egin nahi genuen, eta hori hasiera partean behintzat ez zen posible izan; bestetik,

patidari buelta emateko hainbeste lan egin ostean azken tantoan galtzeak pena handia ematen du.

San Fermin Torneoa jokatu duzu. Zein izango da hurrengo?

Abuztuko buruz-buruzkoa dator orain. Urteko txapelketarik garrantzitsuena da, eta horregatik ordurako entrenatzen ari naiz. Abuztuaren hasieran hasiko da, eta irailaren lehenengo astean bukatu. ◀



NOELIA LATABURU

TOLOSA ▶ KIROLAK

Igeriketa txapeldunari saria

I. Terradillos ▶ Tolosaldea Igeriketa Kirol Taldeko zuzendari Ricardo Muñagorrik (eskuinean) eta Tolosako Aralar Kirolak dendako Anate Iturralde (ezkerrean) kirol ekipamenduan gastatzeko 300 euro eta 2 bainujantzi eman dizkiote opari Jokin Otaegiri. Jokatu berri den Espainiako Igeriketa Txapelketan lehen postuan amaitu izanagatik jaso ditu sariak. HITZA



IBARRA ▶

Udal sareko ura ez da edangarria

Udaletik adierazi dutenez, udal sareko ura ez da edangarria kutsadura mikrobiologikoagatik. Egoera konpondu bezain pronto jakinaraziko dutela azaldu dute.

BERASTEGI ▶

Podologoaren bisita izango da hilaren 22an

Hilaren 22an izango da Gaztainondon podologoaren bisita. Izena emateko 943 68 32 64 edota 943 68 32 02 zenbakietara deitu beharko da.

ADUNA ▶

'Historia se escribe con H' gaur Asvinenean

Karmakros antzerki tailerrak *Historia se escribe con H* antzezlan eskainiko du gaur, 22:00etan, Asvinenea arte eszenikoen laborategian.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebexa: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroizko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrumendi egoitza: 670325

AIZKORA ▶

Rekondo eta Olano, bigarren mailako finalerako txartel bila

Etzi jokatuko dute, Iturenen, maila horretako Nafarroako Aizkolari Txapelketako kanporaketa saioa beste 11rekin

JAIONE ASTIBIA

Jon Rekondo eta Santi Olano leitzarrek Nafarroako Bigarren Mailako Aizkolari Txapelketako kanporaketa jokatuko dute bihar bertan, Iturenen eginen duten saioan.

Iturengo plazan, 18:00etan hasita, erabakiko dira maila horretan herrialdeko finalera joanen diren izenak. Bi leitzarrek batera, beste hamai-ka aizkolari lehiatuko dira finaleko txartel bila. Hauek dira Rekondorekin eta Olanorekin ariko direnak: Xabier Mindegia, Jose Luis Telletxea eta Je-

sus Etxeberria labaindarrak; Luis Mari Belarra eta Juan Telletxea, Doneztebekoak; Esteban Pikabea, gerendiaindarrak; Dabid Amillano, Altsasukoa; Mikel Erdozia, etxarri-aranatarrak; Jose Antonio Loiarde, Zubietakoa; Xabier Ariztegi, etxalartarra; eta Sergio Mandazen, Garraldakoa.

Taldexkatan jarrita, finalerako dauden bost txarteletatik bat lortzea dute helburu guztiek: bina kana-erdiko eta 60 ontzako bana ebaki beharko ditu bakoitzak; lan hori egiten denborarik gutxien igarotzen duten aurreneko bost aizkola-

riak sailkatuko dira 2. mailako finalerako.

Bi leitzarrei dagokienez, jakina da Rekondo eskarmentuko aizkolaria dela. Iaz, 20 urtez behoko Euskal Herriko txapelidun izan zen; aurten, 23 urtez behekoetan, txapelidunorde egin du eta nagusiekin ere lehiatu da. Nafarroako Txapelketa honi dagokionez, berriz, iaz finalerako sailkatzea lortu zuen, gero hirugarren egin bazuen ere. Olano, berriz, aurten itzuli da lehiaketara.

Eta gainerakoei dagokienez, noski, lehendabiziko hautagai da iazko txapeliduna bera, Te-



Rekondo —ezkerrekoa— eta Olano leitzarrek, erakustaldietan. HITZA

lletxea labaindarra. Honekin batera, Belarrak, Amillanok eta Etxeberriak ere, iazko finaleko parte-hartzaileak denak, zer esanak eta zer eginak ere emanen dituzte. Amillano bera eta baita Mindegia ere, 23 urtez behoko nazio mailako txapelketan parte hartutako aizkolariak dira. Batez beste, 13ak aintzat hartzeakoak, beraz.

Txapelidunen Liga

Bestalde, Txapelidunen Ligako jardunaldia du bihar Arrospidetik. Zornotzan, 13:00etan hasiko den jaialdian, Nazabal eta Mindegia izanen ditu aurkari leaburuarrak. Oraingoz, 10,5 punturen jabe da eta biharkoa izanen du bigarren saioa lehiaketa honetan.

LEITZA ▶ PILOTA

Plazako buruz buruko Pilota Txapelketari gaur arratsaldean ekinen diote

16 pilotarik parte hartuko dute: 8 hasieratik, eta 4 final-laurdenetatik aurrera ariko dira

J. ASTIBIA

Gaur arratsaldean, 17:30etik aurrera ekinen diote aurtengo-arekin bigarren edizioa izanen duen Plazako buruz buruko Pilota Txapelketari.

Bi-bitakoa bukatu eta atsedeen egun batzuk hartuta, hura baino motzagoa izanen da hau. Sake librean, zabalera Leitzako

plazako ezkerreko eta eskuineko lurreko arrastoak muga direla jokatuko dituzte partidak, 22ra, noski.

Txapelketa honetan guztira hamasei pilotarik parte hartuko dute. Gaurko kanporaketetan zortzi ariko dira eta lau irabaztunak zuzenean sailkatuko dira hurrengo larunbatean jokatuko dituzten final-laurdene-



Alduntzin eta Telletxea, iaz. J. A.

tarako. Orduan sartuko dira jokoa, beste lau parte-hartzaileak, hain zuzen ere, iazko txapelketan finalaurrekoetarako sailkapena lortu zutenak.

Hala, gaurko partidak honako pilotari hauen artean jokatuko dituzte: Asier Gartzia eta Iñigo Zubillagak; Martin Telletxea eta Joseba Lazkanok; Noe Buldainek eta Iñaki Mariñelarenak; Mikel Iriartek eta Antton Abuzak. Guztiak herrikoak; Telletxea, da Ezkurrakoa.

Iazko final-aurrekoak zain

Hala, aitatu diren partidaren hurrenkeraren berean, horietako irabazleek, Unai Olano, Harkaitz Bengoetxea, Iñaki Alduntzin eta Igor Aldaia izanen dituzte arerio final-laurdenetan. Lehendabiziko bi partiduetako garaileek eta beste bietakoek, bestaldetik, osatuko dituzte final-aurrekoetarako partidetarako izendapenak.

LEITZA ▶

Herenegun lapurreta egin zuten banketxe batean

ERREDAKZIOA

Herenegun eguerdiartearen lapurreta egin zuten Vasconia banketxeak Leitzan duen surkutsaletik.

Dirudienegun, lapurrek bertako langileak hainbat denboran atxikita izan zituzten, gainera, segurtasun kutxa ireki bitartean.

Langileek parte eman zuten arte, lapurretaz ez zen inolr jabetu. Ustez, ez omen zuten askorik ohostu.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Aduxa. Karmakros antzerki tailerraren *Historia se escribe con H.* 22:00etan, Asvinenean.

DEIALDIAK

Ibarra. *Sua* filmaren grabaketa saioa Seguran. 10:30ean aterako dira Ibarroko plazatik, eta 11:00etan eta 16:00etan egingo dute grabaketa han.
Tolosa. Udaberri dantzari taldeak 2006-07rako umeentzako dantza ikastaroak antolatatu ditu. Izen-ematea, Igarondo igerilekuaren ondoan, 17:00etik 20:00etara.
Tolosa. Andorrara irteera antolatatu du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 22tik 25era, Coma Pedrosa eta Pic de Serrere mendiak igoz. Izen-ematea, elkartean (Gudari, 5. 943 65 27 89).
Tolosa. Oargi elkarteak Picos de Europa mendira irteera antolatatu du hilaren 22tik 25era. Interesatuak 637 83 03 80 telefono zenbakira deitu.
Villabona. Garagardo Azoka, 18:00etatik 01:00etara, Txerminen.
Villabona. 17:00etan, ume jolasak eta merienda, Gaztebean. Gauean, kontzertua: Hurto eta beste talde bat.

ERAKUSKETAK

Alegia. Miren Ortegaren margoak, Jubilatuen tabernan.
Hernalde. Gregorio Lopezen lanak, Ostatuan.

Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.
Tolosa. Iñaki Epelde, Jose Luis Longaron eta Carmen Mateo tolosarren margolanak, Errotan.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzo jatetxean.

JAIK

Alegia. Egitarau ofiziala: 09:00etan, herriko txistulari eta trikitilarien diana; 09:30ean, Giroarte dultzaina taldearen diana; 11:00etan, arku tiraketa *Arko Natura* taldearen eskutik, eliza ondoan; 12:00etan, bakolin eta sagardo dastaketa sardina eta txorizo erreekin; ordu berean, Loatzo Musika Eskolaren kalejira; 17:00etan, Alegiako dantzarien emanaldia Larraitz auzoko plazan; 18:00etan, Larraitz auzoko plazan, Harri-jasotzaileen I. Txintxarri Saria, Aimar Irigoien, Izeta II.a, Izeta III.a, Ostolaza. Harriak: 125 kiloko bola, zilindroa eta kubikoa; gero, aizkolariak: Floren Nazabal eta Angel Arrospide; 19:45ean, Salbea Txintxarri abesbatzaren eskutik; 21:00etan, zahagiardoa; 23:00etan, umeen karaokea; 00:00etatik 05:00etara, makro diskoteka. Egitarau alternatiboa: 20:30ean, zahagiardo bateratua; 23:30ean, *Ez Alegin ez inon, AHTrik ez!* manifestazioa; ondoren, Jose Luis no me mires con el ojo de cristal, Konkouma eta Uek taldeen kontzertua; 01:00etan, Gaztebean, DJ Burrunba.
Asteasu. 16:30etan, festen

hasiera: tranpazulon igoera eta txupinazoa; 17:00etan, haur jolasak; 18:30ean, VI. Nazioarteko Toka Txapelketa; 21:00etan, herri afaria; gero, Izer eta Narbaiza trikitilariak; goizaldera, txokolatada.
Lizartza. Gazte Eguna: 12:00etan, hamaiketako-gosaria Gaztebean, jatekoa eta edatekoarekin; gero, kalejira Lizartzako txarangarekin; 14:00etan, herri bazkaria plazan (abesten ariko dira giroa alaitzeko); ondoren, herriko presoen senideen omenezko ekitaldia; gero, poteoa; 20:00etan, patata tortilla lehiaketa; gero, lehiaketako patata tortillekin afaria Gaztebean; azkenik, Nekin taldearekin kontzertua.

MUSIKA

Tolosa. Izeba Pilarren Ilobak. 19:00etan, Intxurre tabernan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi ebexa. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)


10:30-13:00. *Hitza* hegati magazina.

Goiko irrattia (107.0 FM)

13:00. *Kornera* magazina.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



ZORIONAK

Leire eta Mikel, Maider eta Iban.
Zorionak lauroi
eta ondo pasa gaurko eguna.
Hurrengoan egun desberdinak aukeratu.



badugu GILTZA, badugu HITZA

Giltza entregatzeko lekuak.

- ▶ ANOETA Izarti Txokolategia
- ▶ IRURA Amets estankoa
- ▶ VILLABONA Larrea kafetegia

- ▶ LEITZA HITZAren egoitza
- ▶ TOLOSA HITZAren egoitza
- ▶ ALEGIA jubilatuen taberna